

**ERABAKI PROPOSAMENA, 2018ko IRAILAREN 27koa, UPV/EHUko GOBERNU KONTSEILUAREN BILERARAKO: ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LAN KONTRATUDUN LANGILEENTZAKO 2016 ETA 2017ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOEN OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK ONARTZEA.**

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak, 2016ko uztailaren 7ko bileran, 2016ko lan eskaintza publikoa onartu zuen administrazio eta zerbitzuetako langileentzat, eta erabaki hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 151. zenbakian argitaratu zen 2016ko abuztuaren 10ean. Bertan deialdiko lanpostuen kopurua zehaztu zen, talde, kategoria eta espezialitateen arabera multzokatuta.

Era berean, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak, 2017ko abenduaren 14ko bileran, 2017ko lan eskaintza publikoa onartu zuen administrazio eta zerbitzuetako langileentzat, eta erabaki hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 244. zenbakian argitaratu zen 2017ko abenduaren 26an. Bertan deialdiko lanpostuen kopurua zehaztu zen UPV/EHUko talde, kategoria eta espezialitateen arabera multzokatuta.

Orain, UPV/EHUko organo eskudunek lan eskaintza publiko horiek aurrera eramán ditzaten, prozesuaren oinarri orokorrak eta titulazio talde bakoitzerako oinarri espezifikoak prestatu ditugu. Hautaketa prozesu bakarra egingo da bi eskaintzatarako, halaxe erabaki baitzuten AZPko langile funtzionarioen eta lan kontratadunen negoziazio mahaiek 2016ko ekainaren 9ko eta 2016ko ekainaren 30eko baterako akordioen bidez.

UPV/EHUko Estatutuen 59. artikuluari eta hurrengoei jarraituz, deialdia sindikatuekin behin negoziaturik eta gehiengoak babesa emanik, orain, errektoreak proposamena aurkezten dio Gobernu Kontseiluari, berari baitagokio oinarriak onartzea.

Hori guztia kontuan hartuta, gerentearen proposamenari jarraituz, Gobernu Kontseiluak honako hau

## PROPOSATZEN DU

**Lehenengoa.-** Onartzea deialdiaren oinarri orokorrak (I. eranskina) eta oinarri espezifikoak (II. eranskinetik V.era bitartekoak). Honela daude banatuta oinarri espezifikoak eranskinetan:

- I. taldea (II. eranskina)
- II. taldea (III. eranskina)
- III. taldea (IV. eranskina)
- IV. taldea (V. eranskina)

**Bigarrena.-** UPV/EHUko errektoreari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren erabakiak eman ditzan, bai eta, oinarriak argitaratu ondoren, akatsak zuzentzeko edo bestelako aldaketa formalak egiteko beharrezko izan daitezkeenak emateko ere.

**Hirugarrena.--** Agindua ematea deialdiko oinarri orokorrak eta oinarri espezifikoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

Leioa, 2018ko irailaren 27a



**Lore Bilbao Artetxe**

UPV/EHUko gerentea